

**SINTRON HARTZEKO AHOLKUAK**
USO DE SINTRON

Tronbrosia edo enbolia jasateko arriskua dutenek aho bidezko antikoagulatzaileak hartu behar dituzte arrisku horri aurre egiteko, edo berriro ez gertatzeko, honezkero gertatu bada.

Hartzen ari zaren medikamentuak baliteke odoljarioak sorraraztea, odola "arintzen" duelako; dosi txikietan, berriz, nahi dugun eragina lortzen da.

Esandako bi mutur horietatik alde egiteko, aldizka, odolaren analisia egingo zaizu, eta, emaitzaren arabera, medikuak zer dosi hartu behar duzun esango dizu.

Oso garrantzitsua da jarraibide hauek betetzea:

1. Ez ahaztu medikuak agindu dizun dosi zehatza hartzea. Dosi bat ahaztuz gero, hurrengo egunean ez bikoiztu dosia. Medikamentua arratsalde hartu behar duzu beti.
2. Nahiz eta galera txikia izan, hortzoi edo sudurretik odola galtzen baduzu, pixa gorria edo eginkari odoltsuak egin, edo azalean orban gorriak antzematen badituzu, ez duzu medikamentu hau hartu behar, eta lehenbailehen medikuarenera joan behar duzu.
3. Hortz bat atera behar baduzu, edo interbentzioren bat egin behar badizute, medikazioa kontrolatzen duen medikuari jakinarazi behar diozu.
4. Istripuren bat dela-eta odola galduz gero, indar handiz estutu behar da alde hori odoljarioa gelditu arte. Gauza bera egin behar da odola ateratzen dizutenean.
5. Ez hartu aspirinarik, ez eta azido azetilsalizilikorik daukan medikamenturik ere. Hanturaren kontrakoren bat hartu baino lehen medikuari galdetu behar diozu. Badira tratamendu antikoagulatzailea aldatzen duten medikamentuak; beraz, medikazio berria agintzen dizuten guztietan medikuari galdetu behar diozu. Ez hartu medikamenturik zure kabuz.
6. Ez jarri muskulu-barneko injekziorik.
7. Tratamendu antikoagulatzailea alda daiteke honelakoetan: gaixotzea (sukarra izan ala ez); beherakoa, goitikina edo ikerizia edukitzea; edo, jateko gogoia galtzea. Medikuari galdetu behar diozu beti.
8. Ez aldatu era nabarmenean elikadura eta bizimodua.
9. Alkohola duten edariak baztertu.
10. Haurdun zaudela uste baduzu, jakinarazi.

Los anticoagulantes orales son una medicación que tienen que tomar todas aquellas personas que tienen peligro de sufrir una trombosis o una embolia y, si ésta ya ha tenido lugar, para que no se repita.

El medicamento que usted está tomando puede producirle hemorragias, porque "aligera" la sangre, en cambio en dosis pequeñas producirá el efecto deseado.

Para evitar estos dos extremos, cada cierto tiempo se le efectuará un análisis de sangre, de acuerdo con el cual, el médico le indicará la dosis que debe ir tomando.

Es muy importante que siga fielmente las siguientes indicaciones:

1. No olvide tomar la dosis exacta indicada por el médico. Si por descuido dejara de tomarla un día, no tome el doble al día siguiente. Mantenga siempre el horario de tarde para tomar la medicación.
2. En caso de sangrar, aunque la pérdida sea pequeña, bien sea por encías, nariz, orina roja, heces sanguinolentas o manchas rojas en la piel, no tome la medicación y vaya lo antes posible al médico.
3. En caso de requerir una extracción dentaria o una intervención quirúrgica, deberá comunicarlo al médico que controla su medicación.
4. En caso de accidente, en los que hubiera sangrado, deberá apretarse fuertemente, la zona afectada, hasta que ceda. Lo mismo sucede con las extracciones de sangre.
5. No tome aspirinas, ni medicamentos que contengan ácido acetilsalicílico. Consulte a su médico antes de tomar antiinflamatorios. Hay medicamentos que alteran el tratamiento anticoagulante, cuando le prescriban una nueva medicación, consulte siempre a su médico. No tome ningún medicamento por su cuenta.
6. No le pueden administrar inyecciones intramusculares.
7. Si se pone enfermo, con o sin fiebre, si tiene diarreas, vómitos, pérdida de apetito o ictericia, su tratamiento anticoagulante puede alterarse. Consulte a su médico.
8. No cambie de forma importante su régimen alimenticio, ni su régimen de vida.
9. Evitar bebidas alcohólicas
10. Si sospecha embarazo, comuníquelo.